


3.2.1.3.- 1.000 biztanleko motorizazio indizearen bilakaera



Ekonomiaren atzeraldian motorizazio indizeak ia egonkor mantendu ziren, 2009. eta 2013. urteen bitartean, eta 2014an eta 2015ean % 0,6 eta % 0,14 murriztu ziren, hurrenez hurren. Turismoen motorizazio indizeak zazpigarren urtez jarraian egin zuen behera (% 0,51), eta ziklomotorrena ere jaitsi zen (% 0,55), 2014. urtearekin alderatua. Autobusetan, kamioietan eta traktoreetan matrikulazioak areagotu (% 4,73) ziren arren, motorizazio indize globalak apur bat behera egin zuen.

Alde horretatik, krisiaren unerik gogorrena oraindik iristeke zegoenean, 2008ko Donostiako Hiri Mugikortasun Iraunkor eta Seguruaren Planak hazkunde geldo bat diagnostikatu zuen, eta azpimarratu zuen autoan oinarritutako mugikortasuna bateraezina izango zela garapen iraunkorarekin. Izan ere, ibilgailuetarako bide ahalmena handitzeak hirian bide azpiegitura berriak eraikitzea behartuko luke, eta horrelako obrak ez dira oso bideragarriak ingurumen eta ekonomiaren ikuspegietatik, petrolioaren prezioak garraiobide horretan duen eragina ahaztu gabe.